KULTURA 2.0 - Prestakuntza-pilulak: FACEBOOK PERTSONALIZATZEKO APLIKAZIOAK

2011ko urria

Kultura 2.0 ekimenaren barruan, «kultura 2.0 prestakuntza-pilulak» prestatzen eta hedatzen hasi da Kulturaren Euskal Behatokia, EAEn kultura-sektoreko enpresek eta profesionalek egindako eskaerei erantzun zehatza emateko asmoz.

Kultura-sektorean, geroz eta enpresa gehiago daude gizarte-sareetan eta, zehatzago, Facebook-en sartuta. Horri esker, sareko ikusgarritasuna areagotzen dute, bezeroak atxiki eta atzematen dituzte, etab. Zuen presentzia hori zabal eta hobe dezazuen, gure orriak areago pertsonalizatzeko aplikazio batzuk aurkeztuko dizkizuegu.

Zer dira Facebook-en aplikazioak?

Aplikazioak –apps ere deritze– hainbat eduki-mota (argazkiak, bideoak, etab.) aurkezteko eta antolatzeko Facebook-en exekutatzen diren programak dira. Gure orria edo profila sortzen dugunean, Facebook-ek automatikoki ezartzen ditu aplikazioetako batzuk (argazkiak, mezuak, estekak, etab.). Horiez gain, ordea, mundu osoko milaka kanpo-garatzailek sortutako 550.000 aplikazio aktibo baino gehiago daude Facebook-en.

Nola instalatzen dira aplikazioak?



Eskuarki, oso erraza da aplikazioak instalatzea. Zalantza handiena sor daiteke aplikazioak gure profileko datuetara sartzeko edo ekintza batzuk egiteko –adibidez gure horman argitaratzeko– baimenak eskatzen dizkigunean.

Aplikazioaren arabera, halako edo halako baimenak eskatuko dizkigu, baina beti jakinarazi behar digu zer pribilegio eskatzen dizkigun. Horren arabera, erabiltzaileak erabakiko du zer arrisku dagoen eta baimenak emango dizkion, ala instalazioa bertan behera utziko duen.

Zer aplikazio erabil ditzakegu?

Gure orriak erabilera profesionalerako egokitzen lagun gaitzaketen aplikazioetako batzuk aurkeztuko dizkizuegu. Batez ere, honako eginkizun hauek egiten lagun gaitzakete:

1. gure orriaren itxura pertsonalizatzen (iFrame aplikazioak)
2. Facebook eta beste 2.0 tresna batzuk integratzen
3. gure jarraitzaileekin Facebook-en harremana izateko beste bide batzuk erabiltzen
4. gure marka edo produktuak sustatzen edo saltzen

Gogoan izan behar dugu Facebook-erako eta beste gailu batzuetarako aplikazioak etengabe-etengabe garatzen direla eta, ondorioz, 550.000 aplikazio aktibo horien artean, hemen agertzen direnez gain, beste batzuek hobeki erantzun diezaieketela gure premiei. Gainera, ez dugu ahantzi behar aplikazioak zaharkitu egin daitezkeela, Facebook sortu zenetik hona, aldian aldiro aldaketak egin dituelako eta, horien ondorioz, aplikazio horietako batzuk desagertu edo aldatu egin direlako.

1. Facebook pertsonalizatzeko 20 aplikazio

iFrame aplikazioak. Lau aplikazio aurkeztuko dizkizuegu, irudi bat edo kanpoko web-orri bat kapsulatzeko gure Facebook-eko orriko (fan page) erlaitz (Tab) berri batean. Horri esker, **landing page** bat sortuko dugu. Eskuarki, aplikazio horiek aukera ematen dute eduki desberdinak erakusteko jarraitzaileentzat eta jarraitzaile ez direnentzat. Aplikazio batzuen eta besteen arteko alde nagusia bi alderditan antzemango dugu: zenbat eta nolako baimenak eskatzen dizkiguten instalatzeko, eta orri berria sortzeko zer tresna erabili ahal ditugun (HTML, CSS, Jacascript).

Static HTML - iframe for Pages

Involver enpresako aplikazio horrek HTML kodearekin erraz lan egiteko aukera eskaintzen digu, baina ez digu uzten kanpoko scripts-ak edo CSS txantiloiak erabiltzen. Halere, Interneten gehien gomendatzen diren iframe aplikazioen artean dago. Arazoak: alde batetik, instalatzeko baimen asko eskatzen ditu; bestetik, eskaintzen dituen aplikazioen artean ezin dira erabili doan bi baino gehiago.

TabPress

HyperArts enpresaren doako aplikazioa; HTML kodea, CSS txantiloiak eta Javascript. erabiliz, orri berri bat (iFrame) sortzeko aukera ematen du. Ordaindutako beste bertsio bat ere badago, funtzionalitate gehiagorekin. Involver aplikazioak ez bezala, TabPress-ek gutxieneko pribilegioak baino ez ditu eskatzen instalatzeko.

Static html - iFrame Tabs

Erlaitz pertsonalizatuak sortzeko aplikazio hedatuenetako bat da. HTML kodea ez ezik, CSS txantiloiak eta Javascript ere erabiltzeko aukera ematen du. Gutxieneko pribilegioak baino ez ditu eskatzen instalatzeko.

Landing Page

Beste orri batzuetarako estekak izan ditzaketen bi irudi erabiliz, landing page bat sortzeko aukera ematen du Baltic Point, enpresaren aplikazio horrek. Orri horietako bat oraindik gure orriaren jarraitzaileak ez direnentzat izango da, eta bestea dagoeneko jarraitzaileak direnentzat. Aplikazio horrek besteek baino aukera gutxiago eskaini arren, HTMLren ezagutzarik ez duten erabiltzaileek errazago erabiliko dute. Enpresa berberak beste aplikazio bat ere badauka, HTML kodea erabiliz landing page bat sortzeko aukera eskaintzen duena.

2. Gure orrian beste 2.0 tresna batzuk txertatu eta elkarreragiteko aplikazioak

RSS Graffiti

Aplikazio horren bidez, gure blog-aren edo web-orriaren edukia Facebook orrian argitara dezakegu, RSS edo Atom feed-en bidez

Networked Blogss

Aurreko aplikazioak bezala, aplikazio horrek ere RSS-rako eta Atom-erako euskarri bat dauka, gure blog-eko edo web-orriko post-ak Facebook-en argitaratzeko. Bereizgarrietako bat aipatzearren, blog-a erregistratzen dugunean, Networdked Blogs-en bilaketaren emaitzetan agertu ahalko da, erregistratutako gainerako blog-ekin batera.

YouTube

Aplikazio horrek, automatikoki, Youtube-ko gure kontuko bideoak Facebook-en argitaratu eta partekatzeko aukera ematen digu.

YouTube Video Box

Gure profileko erlaitz berri batean edo gure orrian argitaratu eta gorde ditzakegu Youtube-ko bideoak.

Selective Tweet

Aplikazio horri esker, gure twitter-eko profila Facebook-eko orrian txerta dezakegu, gure twitter-aren bidez geure orria eguneratzeko moduan, eta aukeratutako twet-ak baino ez argitaratzeko aukerarekin.

Tweets to pages

Aplikazio horren bidez, Facebook-eko jarraitzaileen orrietan txerta ditzakegu edozein twitter-eko kontuko tweet-ak. Aurreko aplikazioan ez bezala, aplikazio honetan ezin ditugu aukeratu twet-ak eta, erantzunak eta mezu zuzenak izan ezik, aukeratutako kontuari lotutako gainerako mezu guztiak agertuko dira Facebook-en.

Picasa Uploade

Picasaren erabiltzaileak bagara, aplikazio horri esker, geure Facebook-eko orrian erantsi ahal izango ditugu aukeratutako irudiak.

SlideShare

Aplikazio horri esker, Slide Share-ko aurkezpenak Facebook-en erakutsi ahal izango ditugu.

Linkedin Profile

Linkedin-eko profila Facebook-en txertatzeko aukera ematen digu aplikazio horrek.

Foursquare

Aplikazio horrek lotu egiten ditu Facebook-eko eta Foursquare-ko (gailu finko eta mugikorrak geolokalizatzeko zerbitzua) gure kontuak. Ondorioz, gure jarraitzaileekin harremana izateko eta Faursquare-ren erabiltzaileen leku interesgarrien[1] kokapena ezagutzeko aukera izango dugu.

1. Zerbitzu horren asmoa da erabiltzaileak doazen edo gustuko dituzten lekuak erregistra ditzaten (*check-in*), sari edo deskontuen truke.

3. Komunikatzeko/informatzeko aplikazioak



Skype me

Aplikazio hori ere aurreko taldean egon liteke, gure Facebook-eko kontutik skype erabiltzeko aukera ematen digu eta. Horretarako, aplikazio hori Facebook-ean instalatuta edukitzeaz gain, skype modu "arruntean" instalatu behar dugu ordenagailuan. Skype Facebook-en bidez erabiltzeak eman diezagukeen abantaila handiena zera da: skype-ko kontaktuak eta Facebook-ekoak gehitzeko aukera izango dugula.



Vpype

Webcam eta mikrofono bat erabiliz, enpresa horrek eskaintzen dizkigun aplikazioak erabil ditzakegu denbora errealean bideoa transmititzeko, bideokonferentziarako kanala bat sortzeko, edo geroago partekatuko ditugun bideoak grabatzeko.



Contact Form

Aplikazio horrek Facebook-eko gure orrirako harreman-inprimaki pertsonalizatua sortzeko aukera ematen digu. Arazo nagusia zera da: aplikazioa instalatzeko eskatzen dituen baimenak gehiegi izan daitezkeela erabiltzaile batzuen ustez.



Polls

Aplikazio horrek gure jarraitzaileekin feed-backa lortzeko aukera ematen digu, gure Facebook-eko orrian sor ditzakegun inkesta errazen bidez.

4. Merkataritza elektronikoko aplikazioak

Facebook-eko erabiltzaileak hainbeste eta hainbeste izanik, Facebook-en oinarritutako merkataritza elektronikoko aplikazioak eta ereduak (f-comerce) sortu dira. Zuen produktuak sustatu eta saltzeko bi aplikazio ekarri ditugu hona.



Payvment E-Commerce Storefront

Gure Facebook-en on-line denda bat sortzeko doako aplikazio ospetsuenetako bat da. Momentuz paypal baino ez du onartzen ordaintzeko, baina antzeko beste aplikazio asko ere badaude, ordainekoak nahiz doakoak, eta horietako batzuen kasuan, produktu zehatz batzuk saltzeko berariaz sortu dira. Adibidez, ReverbNation musikaren kasuan.



Promotions

Aplikazio hori erabiliz, sustapen-kanpainak egin ditzakegu Facebook-en bidez. Gure egungo jarraitzaileen eta beste jarraitzaile batzuen parte-hartzea sustatzeko, lehiaketak, deskontu-txartelak, etab. eskaintzeko aukera ematen du.

Kultura 2.0ren inguruko zer beste gai aipa genitzake hurrengo prestakuntza-piluletan?
(ahalik eta hobekien zehaztu)

Bidali e-maila honako helbide honetara: kulturabehatokia@ej-gv.es